

**HIZKUNTZA PROIEKTUAREN LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ESPARRUAK**

*Egindako azterketaren arabera, jarduera-esparru nagusi hauek proposatzen dira:*

<b>1</b>	<p>Diagnostikoan aztertu eta gero hizkuntzen erabilera harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparruan, antzeman da irakasleek beren arteko harremanetan zein familia eta inguruarekin gaztelera erabiltzen dutela gehienetan. Beraz, jarduera-esparru nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da, bai ikastetxean zein familia eta inguruarekiko harremanetan.</p>
<b>2</b>	<p>Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparruari dagokionez, ikasleek ikastetxetik kanpo euskara erabiltzeko dituzten aukerak gutxi direla eta euskararen maila egokia izateko hizkuntza egoera anitzetan erabiltzeko beharra dutela kontuan izanda, erabilera egoera anitzak eta gero eta konplexutasun handiagokoak sustatuko ditugu ikastetxean, horretarako ikastetxea euskararen erabilerarako toki esanguratsua bihurtuz. Horretaz gain, inguruko erakundeek aisialdirako jardueren eskaintza handia eta egokia egin dezaten lan egingo dugu eta gure ikasleen parte-hartzea bultzatu.</p>
<b>3</b>	<p>Esparru didaktiko-metodologikoari dagokionez, hizkuntzen ikas-ikaskuntza arlo guztietan aztertu eta gero, ahozko hizkuntzaren lanketa urria ageri da arlo guztietan. Beraz, jarduera-esparru nagusia ahozko hizkuntza arlo guztietan lantzea izango da eta, honekin batera, ebaluazio tresna bateratuak erabiltzea ikasleen ahozko hizkuntzaren garapen maila ebaluatzeko.</p>
<b>4</b>	<p>Hizkuntzen esparru didaktiko-metodologikoari dagokionez, Hizkuntzetako ikasgaietan irakasleen arteko koordinazio eza nabaritzen da. Beraz, lehentasunezko jarduera-esparrua izango da metodologia bateratzea ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren garapena sustatzeko.</p>
<b>5</b>	<p>Ikasgaien hizkuntzari eta hizkuntza bakoitzean emandako orduei dagokionez, ikasgai bat atzerriko hizkuntzan emateko beharra antzematen da ikasleen hizkuntza-komunikazioaren konpetentziaren garapena sustatze aldera..</p>